

Mójate-Busti Zaitez

AEMAR (Esklerosi Anizkoitzaren Arabako Elkartea)

Estadio Vital Fundazioa, Aldayeta Klub Nautikoa, Mendizorrotza, Gamarra eta Bastidako igerilekua

2023ko uztailak 9

Ekitaldi nagusia: 12:00etan Estadio Fundazioan



AEMARek (Esklerosi Anizkoitzaren Arabako Elkartea) eta Vital Fundazioak antolatutako **'Mojate – Busti Zaitez'** kanpaina 26. ediziora iritsi da, Arabako gizartea 'bustitzera' gonbidatzeko asmoz. Bustitze hori esklerosi anizkoitza duten pertsoneri laguntzeko ekintza izango da baita birgaitze-zerbitzuak mantentzeko dirua biltzeko ere.

Informazioa

Kanpainaren **helburuak** honako hauek dira: gizartea sentsibilizatzea eta informatzea gazteei eragiten dien gaixotasun sendaezin honen problematikari buruz, eta kolektibo horren bizikaltatea hobetzeko beharrezkoak diren EAEko esklerosi anizkoitzeko zentroetan eskaintzen diren errehabilitazio-zerbitzuak finantzatzeko funtsak lortzea.

Parte hartzeko moduak:

1. **Ekimenean laguntzen duten igerilekuetako batean bustiz.** Aukera honetan igerilekuan mugatutako eremuaren barruan nahi adina metro igeri egin besterik ez da egin behar, eta esklerosi anizkoitza duten pertsoneri laguntzeko diploma egiaztatzaile

eta sinboliko bat jasoko da.

2. **Produktu solidarioak erosten.** Txartel horiek uztailaren 9an bertan eros daitezke, bai jarritako standetan zein AEMAR elkartean.